

Izena: _____ Data: _____

LAMIA MAITEMINDUA

Bazen behin Arangiako haitzetan bizi zen Antton izeneko artzain bat. Egunero-egunero ardiak mendira zeramatzan belar goxoa jan zezaten.

Egun batean bere artaldearekin mendira abiatu zen eta kantu eder bat entzun zuen. Neska liluragarri bat zegoen kantari. Antton berarengana hurbildu egin zen eta hainbat orduz elkarri begira isilik egon ziren.

Iluntzerakoan emakumeak ezkontzeko esan zion Anttoni eta honek baietz erantzun zuen. Antton etxera joan zen eta amari ezkonduko zela esan zion. Ama zur eta lur gelditu zen eta herriko jendearekin hitz egitera joan zen. Ama herriko agureengana hurbildu eta haiek lamia ez ote zen galdetu zioten

Amak Anttoni neskaren oinak begiratzeko esan zion. Antton mendira zuzendu zen. Neskatila ikusi zuenean ahate oinak zituela konturatu zen. Antton etxera itzuli zen triste eta penaturik. Egunak pasa gaixotu egin zen eta penaren penaz hil egin zen.



Lamia elizara joan eta hilkutxaren albotik pasa zen. Elizan sartzea debekatuta zuenez mendirako bidea hartu zuen negar batean. Bere negar malkoak erori ziren lekuan iturri bat sortu zen.

1. Zein zen Anttonen lanbidea?

.....

2. Zein tokitan bizi zen?

.....

3. Zer eskatu zion neskak Anttoni?

.....

4. Nola geratu zen ama?

- Oso pozik
- Harrituta
- Beldurtuta

5. Zer esan zioten agureek amari?

.....

6. Nolakoak ziren neskaren oinak?

.....

7. Zergatik hil zen Antton?

.....

8. Non sortu zen iturri bat?

.....